

BALIABIDEAK

Gure enpresa garatzeko hainbat baliabide hartu behar ditugu kontuan.

- **Baliabide fisikoak:** lokala, ordenagailua, telefonoa eta altzariak izango lirateke.

- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:**

Sararen organizatzeko abilezia kontuan hartuz, biltegiaren kudeaketaz arduratuko da, hau da, biltegiara sartu eta bertatik irteten diren produktuen inguruko ardura. Horrez gain, enpresaren bilakaera aztertuko du izan dituen diru-sarrerak eta kostuak aintzat hartu, epealdi horretan lortu dituen emaitzez baliatuko gara hurrengo baterako ondorio batzuetara iristeko.

Aitanak, web guneen inguruan duen ezagutza zabala eta horiek sortzeko gaitasuna izanda, web-orriaren sorkuntza eta haren digitalizazioaz arduratuko da, bertan, gure produktuak eguneratuko ditu eta beste hainbat informazio erabilgarri ere eskura edukiko dute bezeroek.

Nikoleren harreman sozialetarako trebetasuna ikusita, bezeroekin harremanetan egongo da, beraien galderei erantzun egokiena ematen saiatuko da eta ahalik eta produktu gehien saldu daitezzen bezeroei inkesta baten bidez enpresarekiko duten ikus puntua galdetzeaz arduratuko da. Horrela, alde onak eta txarrak kontuan hartuz, enpresaren garapena eta hobekuntza sustatuz.

Olaiak salmentetarako abilezia eta sorkuntza ahalmen handia du, beraz, bezeroekin harremanak izateaz gain, produktu eta diruaren trukeaz arduratuko da. Gainera, eskaria egin behar denean berak zehaztuko die hornitzaileei zer nolako kantitateak behar dituen enpresak momentuan. Lehen esan bezala, haren sorkuntza gaitasunaz ahalbidetuko gara merkatuan dauden beste produktu batzuen berri izan eta egokiak izan daitezkeenak gure enpresan eskaintzeko.

- **Finantza-baliabideak:** Materiala erosi, soldatak ordaindu, edozein motatako erosketak egin edo negozioa zabaltzeko beharrezkoa den eskudirua edota kreditu lineak izatea ahalbidetzen diguten baliabideak dira.